

# *EHULKU zerbitzua*

# *EHULKU zerbitzua zer den.*



*EHUn euskararen erabilera  
zuzen eta egokia  
bultzatzeko zerbitzua duzu  
EHULKU.*

*EHUko irakasle eta langileoi  
eskaintzen dizuegu  
Euskara Zerbitzutik.*

*Euskaraz ematen dituzuen  
eskoletan eta zerbitzuetan  
sorturiko hizkuntza-arazoei  
irtenbide egokia  
bilatzen saiatzen gara.*

## HONA ADIBIDE BATZUK

### Egin diguten GALDERA:

*Nola du laburdura “bira minutuko” adierazpenak? Euskalterm-en orrian b/min agertzen da. Baina ingelesez eta gaztelaniaz r.p.m. edo RPM onartzen dira. Ez dakigu zein erabili.*

### Gure ERANTZUNA:

*Estandarizazio-erakundeen arabera, halako sinboloak (rpm, rps...) baztertzekoak dira. Haien ordeztuz, r/min eta r/s erabiltzea gomendatzen dute. Gero, bai, irakurri, “bira segundoko” edo “bira minutuko”.*



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



*Beste GALDERA bat:*

*Nola adieraziko genuke “carta de navegación”,  
itsasontziei dagokienez?*

*Gure ERANTZUNA:*

*“Itsasketa-karta” proposatzen dizugu. Horrek ez  
du esan nahi “nabigazio” gaitzesten dugunik, baina  
zabalagoa da, hegazkinei ere badagokie eta.  
“Mapa” ere ez dugu gaitzesten, baina “mapa  
geografiko” zentzuan (errepideena, esate  
baterako)*

*AUKERA DUZU, BERAZ,  
ZEURE ZALANTZEI BURUZKO  
GALDERAK EGITEKO.*



*Ahalik eta lasterren bidaliko  
dizugu erantzuna.*



# Helbide honetan aurkituko gaituzu:

The screenshot shows the EHU website interface. On the left, there is a navigation menu with the following sections:

- Erabiltzaileak**
  - Ikasleak
  - Ikasleak
  - Irakasleak
  - Administrazio eta zerbitzuak
  - Enpresak
- UPV/EHUren egitura**
  - Informazio instituzionala
  - Errektorearen gunea
  - Zuzendaritza kontseilua
  - Gobernu kontseilua
  - Ikastegiak
  - Sailak
  - Institutuak
- Ikasketak**
  - Graduko ikasketak
  - Graduondoko ikasketak
  - Homologazioak
  - Campus Birtuala
- Alorrak**
  - Bekak eta utulaguntzak
  - Euskara

The main content area features several banners and news items. A yellow box highlights a section titled "EHULKU" with a hand cursor pointing to it. The highlighted section includes the following text:

- Euskararen plan gi**
- Azpidazki**
- EHULKU**
- Euskarazko liburu**
- UPV/EHUK euskar (2000-2010)**
- 2000 - 2010 Euskarazko unibertsitate-liburuak**
- ALBISTEAK**
- 2011-11-03: Ingelesean B2 edo B2+ maila dut**

EHULKUren aholkua

(EHULKU)

Euskara Zerbitzua

# *Hauxe duzu galderak egiteko bidea:*

1. Egizu klik EHULKU izenaren gainean, barran.

Edo zoaz honako helbide honetara: <http://www.ehu.es/ehulku>

2. Saka ezazu SARTU.
3. Gero, GALDERA-ERANTZUNAK.
4. Eta, azkenik, **Galdera bidali**.
5. Inprimaki moduko orri bat agertuko zaizu pantailan.

Hura bete eta bidaliezaguzu.

Ez ahaztu zure helbide elektronikoa ipintzea.

*Eta albaít arínen erantzuten saiatuko gara.*

Har ezazu Euskara Zerbitzuaren agurra.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

